



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

Cod. Validación: GET/DEK/2023/3136 9Fdz0asHX8

Dekretua / Decreto:	3136 / 2023	Erref. / Ref.:	LA/mj
Gaia / Asunto:	Aprobar la creación del Sistema Interno de Información del Ayuntamiento de Getxo		
Arloa / Área:	IDAZKARITZA / SECRETARIA		
Interesduna / Interesado:	ETXEBARRIA ETXEITA IGNACIO JAVIER		

AURREKARIAK

1.- 2023ko otsailaren 21ean, 2/2023 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena. Europako arau honen transposizioaren ondorio da lege hori: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 23koa, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa. Whistleblowing Zuzentaraua ere deitzen zaio.

Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legeak ezartzen duenez, sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiak daude behartuta Barneko informazio-sistema bat izatera, legean bertan aurreikusitako baldintzetan. Beraz, horixe egin behar dute udalerriek eta udal sektore publiko osoak.

Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen helburua da babesa ematea testuinguru laboral edo profesional batean arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak hauteman eta legean bertan araututako mekanismoen bidez jakinarazten dituzten pertsoneri.

Administrazio publikoen kasuan, zerbitzu publikoan interes orokorrak kudeatzearen ondorioz, funtzio horretan parte hartzen duten pertsonak zintotasun-estandar handiak bete behar dituzte, eta, horretarako, objektibotasunez erabili behar dituzte botere eta baliabideak, araei jarraituz eta eraginkortasunez, interes publikoari

ANTECEDENTES

1.- Con fecha 21 de febrero de 2023 se publicó en el Boletín Oficial del Estado la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción. Esta norma resulta de la transposición de la Directiva (UE) 2019/1937 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2019, relativa a la protección de las personas que informen sobre las infracciones del Derecho de la Unión, también conocida como la Directiva Whistleblowing.

La Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción establece que todas las entidades que integran el sector público están obligadas a disponer de un Sistema interno de información en los términos previstos en la propia ley. Por tanto, así deben configurarlo los municipios y todo el sector público municipal.

La finalidad de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción es la de proteger a las personas que en un contexto laboral o profesional detecten infracciones penales o administrativas graves o muy graves y las comuniquen mediante los mecanismos regulados en la misma.

En el caso de las administraciones públicas, la gestión de los intereses generales en el servicio público hace que aquellas personas que participan de esa función deban sujetarse a unos elevados estándares de integridad y honestidad, utilizando los poderes y los recursos destinados a tal fin con objetividad, con sujeción a las normas y de manera efectiva

lehenasuna eman ez interes pribatuena gainetik, eta albo batera utziz praktika irregularrak, ez oso etikoak, iruzurrezkoak eta ustelak.

Arau nagusia interes orokorrak zaintzea den eremu batean, beharrezkoa da xede horretara bideratzen diren botere eta baliabideak objektibotasunez, legeei jarraituz eta modu eraginkor eta efizientean administratzea.

Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babes arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea onartu aurretik, ordenamendu juridikoak arau batzuk ezarri dira, administrazio publikoari ustelkeriaren aurkako borrokan eraginkorrak izan daitezkeen neurri zehatzak hartzea eskatzen dietenak. Beste batzuen artean 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea.

Bereziki, Getxoko Udalean, 2022ko apirilaren 4an, Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartu zuen.

Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetze aldera, Getxoko Udalak Barneko informazio sistema bat eduki behar du, lege horren babespean irregulartasunei buruz ematen diren informazioak kudeatu ahal izateko.

Alkatetzaren Dekretu hau izapidetzean, kontsulta egin zaio Udaletxeko langileen legezko ordezkariari, eta bete egin da otsailaren 20ko 2/2023 arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babes arautzen duena Legearen 5. artikulua eskatzen duen izapidea.

y eficiente, priorizando el interés público sobre los intereses privados y desterrando prácticas irregulares, poco éticas, fraudulentas y corruptas.

En un ámbito en el que la máxima es velar por los intereses generales, es necesario que los poderes y recursos destinados a tal fin se administren con objetividad, con sujeción a la legalidad y de manera efectiva y eficiente.

Con carácter previo a la aprobación de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción el ordenamiento jurídico se ha ido dotando de normas que incluyen previsiones específicas que exigen a las administraciones públicas la adopción de medidas concretas que pueden resultar eficaces en la lucha contra la corrupción. Entre otras, Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas, Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno, Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

En concreto, el Ayuntamiento de Getxo aprobó con fecha 4 de abril de 2022 el Plan de Medidas Antifraude del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento de Getxo, teniendo en cuenta todos los antecedentes expuestos y para dar cumplimiento a la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción, debe dotarse de un Sistema interno de información que permita gestionar las informaciones sobre las irregularidades amparadas por esta Ley.

En la tramitación de este Decreto de Alcaldía se ha realizado consulta con la representación legal de las personas trabajadoras del Ayuntamiento, dando cumplimiento al trámite exigido por el artículo 5 de la Ley 2/2023 de 20 de febrero reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.

Hortaz, legeak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz

Y en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Getxoko Udalaren barruko informazio-sistema sortzea onartzea. Barruko kanal seguru eta konfidentzial bat izango du sistema horrek, 2/2023 Legearen 2. artikuluan araututako ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioak tratatzeko.

Onartzea, halaber, Udalaren enplegu publikoek eta lan-jarduera dela-eta Udalarekin harremanetan dauden edo egon diren pertsonen emandako informazio horiek tratatzeko eta kudeatzeko baldintza orokorrak ezartzea.

Sektore publikokoak diren eta izaera juridiko propioa duten entitateek, Getxoko Udalari lotuta badaude edo haren mendekoak badira eta berrogeita hamar langile baino gutxiago badituzte, barruko informazio-sistema partekatu ahalko dute udalarekin, baita ikerketak eta izapideak egiteko bideratutako baliabideak ere. Hartara, horri buruzko erabakiak aurkeztu beharko dituzte. Ezaugarri horiek dituzte honako erakunde autonomo hauek: Getxo Kirolak eta Musika Eskola erakunde autonomoak, Punta Begoña Fundazioa eta "Sociedad Puerto Deportivo El Abra Getxo S.A".

Nolanahi ere, sistemak independenteak izango dira elkarrengandik, eta kanalak bereizita agertuko dira gainerako entitate edo organismoekiko, herritarrei nahasmendurik ez sortzeko moduan.

Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultur Etxea eta Udal Egoitza erakunde autonomoek euren barruko informazio-sistema propioa izan beharko dute bakoitzak, gaur egun 50 langile baino gehiago dituztelako. Hartara, dagozkien erabakiak hartu beharko dituzte.

Bigarrena: Getxoko Udalaren barruko informazio-sistemaren eta informazioak kudeatzeko prozeduraren funtzionamenduarauak onartzea (erabaki honekin batera eranskin gisa doan dokumentuan jasota daude).

DISPONGO

Primero: Aprobare la creación del Sistema Interno de Información del Ayuntamiento de Getxo, constituido por un canal interno seguro y confidencial, destinado al tratamiento de las informaciones sobre las acciones u omisiones reguladas en el artículo 2 de la Ley 2/2023.

Aprobar, asimismo, el establecimiento de las condiciones generales para el tratamiento y gestión interna de dichas informaciones, formuladas por sus empleadas y empleados públicos y por aquellas personas que estén o hayan estado en contacto con el Ayuntamiento por motivo de su actividad laboral.

Las entidades pertenecientes al sector público con personalidad jurídica propia, vinculadas o dependientes del Ayuntamiento de Getxo, que cuenten con menos de cincuenta trabajadores, como son en la actualidad los organismos autónomos Getxo Kirolak y la Musika Eskola, la Fundación Punta Begoña y la Sociedad Puerto Deportivo El Abra Getxo S.A podrán compartir con el Ayuntamiento el Sistema Interno de Información y los recursos destinados a las investigaciones y las tramitaciones, para lo cual deberán adoptar los correspondientes acuerdos.

En todo caso, los sistemas serán independientes entre sí y los canales aparecerán diferenciados respecto del resto de entidades u organismos, de modo que no se genere confusión a los ciudadanos.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 13 de Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción, los organismos autónomos Aula de Cultura y la Residencia Municipal, deberán contar con su propio Sistema Interno de Información por tener, al día de la fecha, más de 50 empleados, para lo cual deberán adoptar los acuerdos que procedan.

Segundo: Aprobare las normas de funcionamiento del Sistema Interno de Información del Ayuntamiento de Getxo y de Procedimiento de Gestión de Informaciones recogidas en el documento que se une a este acuerdo como anexo.

Hirugarrena: Barruko informazio-sistemako arduradun izendatzen da Idazkaritza Nagusiko titularra.

Udal sektore publikoan dauden mendeko entitateen barruko informazio-sistemako arduraduna administrazio-organo edo gobernu-organo egokiak izendatuko du.

Laugarrena: Irregularitasunak jakinaraztea ahalbidetuko duen barruko informazio-kanala ezartzea onartzea.

Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 7. artikuluko baldintzak beteko ditu kanal horrek, eta bigarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan aurreikusitako datan egongo da funtzionamenduan, hau da, 2023ko ekainaren 13an baino lehen.

Bosgarrena: Erabaki honen 3. puntuan jasotako izendapena Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari jakinaraztea.

Seigarrena: Erabaki honen 1. puntuan aipatzen diren entitateak Udalaren barruko informazio-sistemara atxiki ahal izango dira, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2 /2023 Legearen 14. artikuluan ezarritako terminoetan.

Zazpigarrena: Ebazpen hau eta Informazioko Barne Sistemaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Zortzigarrena: Akordio honen berri ematea udal-sektore publikoa osatzen duten erakundeei.

Bederatzigarrena: Ebazpen hau Udalbatzaren osoko bilkuran jakinaraztea.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

Tercero: Nombrar Responsable del Sistema Interno de Información a la persona que ostenta la Secretaría General.

Las personas responsables del Sistema Interno de Información de las entidades dependientes que se integran en el sector público municipal serán nombradas por el órgano de administración o de gobierno correspondientes.

Cuarto: Aprobar la implantación del canal interno de información que posibilite la comunicación de irregularidades.

Este canal cumplirá con los requisitos del artículo 7 de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción y estará en funcionamiento en la fecha prevista en la disposición transitoria segunda, apartado 1, esto es antes del 13 de junio de 2023.

Quinto: Notificar el nombramiento contenido en el punto 3º del presente acuerdo a la Autoridad Independiente de Protección del Informante.

Sexto: Las entidades a las que se hace referencia en el punto 1º del presente acuerdo podrán adherirse al sistema de interno de información del Ayuntamiento en los términos previstos en el artículo 14 de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.

Séptimo: Publicar el presente acuerdo, con el texto íntegro del Sistema de Interno de Información, en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Octavo: Dar traslado de este acuerdo a las entidades que conforman el sector público municipal.

Noveno: Dar cuenta de la presente Resolución al Pleno de la Corporación.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/> Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.